

19/10 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Ainara Ibañez
Ana Marta Iriarte
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren urriaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko Hezkuntza Ikuskaritza Kidegora sartzeko lehiaketa-oposaketa deitzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

2/2006 Lege Organikoak (LODE) ezartzen ditu zeintzuk diren Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoan sartzeko oinarrizko baldintzak, eta kidego hori karrerako funtzionario diren langileei zuzendutako lehiaketa-oposaketa bidez arbitratuko da.

15/2008 Legeak sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoa kidego izaerarekin. Gainera, arau horrek berak barne hartzen ditu sarbide sistemaren ezaugarriei eta interesatuek bete behar dituzten baldintzei buruzko aurreikuspenak, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak jasotzen dituenak.

276/2007 Errege Dekretuak xehetasun osoz eta oinarrizko izaerarekin zehazten du Kidego horretara sartzeko jarraitu beharreko prozedura. Horretan oinarriturik, 2009ko urtarrilaren 20ko Aginduak (2009/01/26) egin zuen lehenengo hautaketa deialdia 30 plazarekin.

Aurrerago, 3/2009 Dekretuak ezarri zuen ikuskaritza plaza guztiek euskarazko 2. HE izango dutela (EGA azterketaren baliokidea).

Azkenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko otsailaren 22ko Aginduak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu eskaintza publikoa.

II. EDUKIA

Agindu proiektuak 2 artikulua eta hiru eranskin dauzka:

Lehen artikuluan hautaketa prozedurarako deialdia egiten da. Bigarren artikulua prozeduraren oinarriak ezartzen ditu.

1.2 oinarriak zehazten du aipatu xedapenetan ezarritakoa, hau da, A1 azpitaldeari dagozkion 28 plaza eskaintzen direla guztira, denak 2. hizkuntz eskakizunekoak eta derrigortasun data gaindituta dutenak; horietako bi ezgaitasunagatik txandarako erreserbatuko dira.

Gainerako oinarriek hurrengo tituluak dituzte:

2. Parte hartzeko baldintzak
3. Eskabideak
4. hautagaiak onartzea
5. Hautaketa-organoak
6. Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba, nazionalitate espainiarrik ez duten hautagaienentzat.
7. Oposizio-aldia
8. Lehiaketa-aldia
9. Prozesuaren puntuazio globala, hautagaien ordenatzea eta hautaketa-prozesua gainditzea.
10. Lehiaketa – oposizioa gainditu dituzten Hautatuen zerrenda argitaratzea
11. Hautatutakoek aurkeztu beharreko agiriak.
12. Praktiketako funtzionarioak izendatzea.
13. Praktika-aldia
14. Karrerako funtzionarioak izendatzea.
- 15.- Izaera pertsonaleko datuen trataera.

I. eranskinean merituen baremoa jasotzen da eta II. Eranskinean gai-zerrendaren A eta B zatiak. Hirugarren eranskinean, oposizio-aldien probak baloratzeko irizpideak jasotzen dira.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honek Hezkuntzako Ikuskarrien kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten du, kidego horretako 28 plaza betetzeko.

Kontseiluak begi onez ikusten du enplegu-eskaintza berri hau, egonkortasun handiagoa emango diolako ikuskaritzako plantillari. 2016-17 ikasturteko datuen arabera, ikuskarrien batez besteko adina 57 urtetik gorakoa zen. Ondorioz, datozen urteetan hautapropa gehiago deitu beharko dira eta oso garrantzitsua da proba horiek ahalik eta eraginkorrenak izatea, ikuskaritza funtzioa betetzeko gaitasun onenak dituzten pertsonak aukeratu ahal izateko.

Artikuluei buruzko oharra

Oinarriek 2012ko deialdian esandakoa errepikatzen dute aldaketa hauekin:

- 2.1 oinarria. g) atala gehitzen du baldintzen zerrendan: “Epai irmo baten bidez kondenatua izan ez izana sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik”.
- 3.1.1 oinarria. Hainbat zehaztasun gehitzen ditu hautaketa-prozesuan hautagaiei buruz argitaratzen den informazioa eskuratzeko.
- 3.3 oinarria. HE2 mailaren pareko hizkuntza arloko ziurtagiriak eguneratzen ditu.
- 5.2 oinarria. Epaimahai batean parte hartzeko salbuespenak zehazten ditu. Aurreko hautaketa-prozesuan parte hartu izana ez da hartzen salbuesteko arrazoitzat.
- 5.5 oinarriko b) atala. Bertan zehazten da oposizio faseko proba kalifikatzean kontuan hartuko direla III. eranskinean adierazitako balorazio irizpideak.
- 5.7 oinarria. Hautagaien aukera berdintasunari buruzko atala desagertu egiten da.
- 7.2 oinarria. Probaren B zatiko gaiak aldatzen ditu.
- 7.3 oinarriko 1 eta 2 atalak. Espreski adierazten dute idatzizko ariketak beste egun batzuetan irakurri ahal izango direla, gehienez 15 minutuko epean galderak egiteko eta zalantzak argitzeko.
- Oposizioaren hurrengo zatiak kanporatzaileak dira.
- 9.2.2 oinarria. Irizpide guztietan berdinketa gertatzen bada, epaimahaiak gaitasun-proba osagarriak egingo ditu. Aurreko dekretuak lehentasuna ematen zien emakumeei, baina gaur egun emakume portzentajea % 60koa denez, neurri hori ez da beharrezkoa.
- 13 oinarria.3. 2. paragrafoak dio batzorde kalifikatzaileak mediku azterketak eskatu ahal izango dizkiela praktiketako funtzionarioei, ziurta dezaten betetzen

dituztela ikuskaritza funtzioa ongi garatzeko beharrezko diren baldintza fisiko eta psikikoak.

Kontseiluaren iritziz, aldaketek oro har hobetu egiten dute prozedura.

Gainerakoari dagokionez, Kontseiluaren balorazio eta proposamenak jarraian adierazitako gaietan zentratu dira:

- ***Oposizio proba.***

Oposizioaren zatiak kanporatzaileak dira:

Gure iritziz aldaketa hori positiboa da, lehenik eta behin, ulertzen dugulako probaren alderdietako bakoitzean gutxieneko bat lortzen ez duenak ezin duela proba osoa gainditu. Bestalde, aldaketa honek lana ken diezaioke epaimahaiari, gai izango baita arreta handiagoa eskaintzeko zati guztiak gainditzen dituzten hautagaiei.

- **1 zatia.** 7.3 oinarriko 1 atala. Espreski esaten du hautagaiak idatzizko ariketak irakurri ahal izango dituela epaimahaiaren aurrean, aurrez aukeratutako beste egun batzuetan, gehienez 15 minutuko epean galderak egiteko eta zalantzak argitzeko.

Begi onez ikusten dugu zehaztaper hori, hala ere, 15 minutuko epea laburregia iruditzen zaigu hautagaiak eginiko galderen bitartez bere gaitasun pertsonalei eta trebeziei buruzko alderdi garrantzitsuak detektatzeko. Horregatik proposatzen dugu epe hori 30 minutura luzatzea, maisu-maistren kidegorako LEPea proposatu genuen bezala, eta galderak egin beharrean elkarrizketa erdi-egituratu bat egitea. Horretarako, ebaluazioaren gidoi eta errubrikaz gain – adituek eginak-, komenigarria litzateke langileen aukeraketako profesionalen laguntza izatea.

- **II. zatia.** Probaren izaera eta edukiari buruz esaten den bakarra haxe da: “idatziz aztertu beharko da Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerako teknika egokiei buruzko kasu praktiko bat, eta Epaimahaiak proposatutako du kasu praktiko hori”. Proba hori baloratzeko irizpideak lehenengoz jasotzen dira III. eranskinean.

Gure iritziz, ona da irizpide horiek jasotzea, baina Kontseiluak uste du “teknika egokiak” esapidea ez dela oso argia. Uste dugu beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar direla, horregatik proposatzen dugu argi eta garbi adieraztea kasu praktikoaren bidez **frogatu behar direla Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunerako beharrezkoak diren gaitasun profesional, pertsonal eta sozialak, prozedurak eta teknikak.**

Gainera, probaren zati honentzat III. eranskinean jasotzen diren irizpideen artean faltan botatzen ditugu gaitasun pertsonal eta sozialak. Horregatik proposatzen dugu atal berri bat idaztea eduki honekin:

Komunikazioa eta harremanak

- Pertsonak errespetatzea eta zaintzea
- Interesatuei entzutea
- Enpatia izateko gaitasuna
- Aurretiko eta ondorengo komunikazioa
- Pertsonak eta erakundeak kontsultatzeko gaitasuna

Azkenik, uste dugu hizkuntza ofizialetako batean egin behar dela gutxienez proben heren bat.

• **Praktika-fasea:** artikulu honek ez du jasotzen fase honetatik salbuesteko aukerarik, halere, karrerako funtzionarioak izendatzeari buruzko 14. artikuluan aipatzen da aukera hori.

Uste dugu kontu hori argitu beharra dagoela. Kontseiluaren iritziz hautagaiek derrigor egin beharko lukete fase hori, salbuespenik gabe, eta gainera jarraipen eta ebaluazio zorrotza egin beharko litzaioke.

• **I. Eranskina. Merezimenduen baremoa**

- Zuzendaritza karguen jardunari buruzko III.1 atalean puntu kopuru bat ematen da zuzendari gisa “ebaluazio positiboarekin -ebaluaziorik egin bada-“ eginiko urte bakoitzeko.

Kontseiluak uste du puntu horiek emateko ezinbestekoa izango dela urte hori ebaluatuta egotea.

Era berean, I. Eranskinean jasota dauden gainerako merezimenduei dagokienez (I. ibilbide profesionala; II.1 behin-behineko ikuskaria, ikasketa-burua, e.a.), zerbitzu-orriaz gain ezinbesteko baldintza gisa eskatu beharko litzateke ibilbide profesionalari buruzko txosten justifikatu bat aurkeztea, bertan adieraziz ongi bete dituela bere funtzioak. Ebaluatu gabeko praktikek ez dute bermerik ematen.

Azkenik, begi onez ikusten dugu merezimendutzat hartzea hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartu izana, bai eta ikastetxeko eskola kontseiluan irakasleen ordezkari izateko hautatua izatea.

- **III. Eranskina. Epaimahaiek oposizio-faseko probak kalifikatzeko aplikatuko dituzten balorazio-irizpideak.**

Begi onez ikusten dugu probaren zati desberdinak baloratzeko irizpideak deialdian bertan argitaratzea, era berean, uste dugu beharrezkoa dela probarako behar diren errubrikak aipatzea.

Azkenik, Kontseiluak espero du *hautaketa-prozesu honen bidez ikastetxeetako ikuskaritza funtzioak hobetuko direla ezarritako jarduera esparru guztietan.*

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2019ko urriaren 3a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi